



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## **UDALBATZARRAK 2015eko MARTXOAREN 31an EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

2015eko martxoaren 31an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 20.30etan, Jon Umerez Urrezola Alkatearen Lehendakartzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M<sup>a</sup> Aranzabe Urruzola  
Onintza Gorostidi Murua  
Jose Ramon Hernandez Cristobal  
Uxue Etxebeste Eizagirre  
Koldobika Jauregi Zinkunegi

Bere ezin etorria azaltzen du: Leire Otegi Elola

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

- 1. Aurreko bilkuretako akten onespena.  
2014ko martxoaren 3an egindako ohiko bilkuraren akta.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Fakturak eta ordainketak.**
- 4. 2014 ekitaldiko udal aurrekontu orokorraren likidazioaren berri ematea.**
- 5. Euskara ikasteko diru-laguntzen eskaera, hala bada.**
- 6. 2014 urteko Kirol Batzordeari emandako diru-laguntzaren kitapenaren onespena, hala bada.**
- 7. Kirol batzordeak eginiko diru-laguntza eskaera, 2015 urteari dagokiona, hala bada.**
- 8. Belako publizitate eta komunikazioak eginiko diru-laguntza eskaera, hala bada.**
- 9. Tolosaldea Garatzen-i 2015 ekitaldiari dagokion ekarpena burutzea, hala bada.**
- 10. 2015 urterako udal zergen hobari eskaeraren azterketa, hala bada.**
- 11. Udal ondasun inbentarioa egiteko Asevasa Asesoramiento y Valoraciones S.A. empresari esleipenaren onespena, hala bada.**



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

**12. Beste batzuk.**

**13. Erregu, galdera eta mozioak.**

.../...

### **LEHENENGO PUNTUA**

#### **AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA**

- 2015eko martxoaren 3ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Akta Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

### **BIGARREN PUNTUA**

#### **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

10/2015 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 26koa, 2014ko aurrekontuaren likidazioa onartzea, ebazten duena.

11/2015 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 27koa, zerrendatutako fakturak onartu eta bere ordainketa egin dadin agintzea, ebazten duena.

### **HIRUGARREN PUNTUA**

#### **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

AUDAX	661,24
AUDAX	98,15
AUDAX	92,22
AUDAX	107,31
AUDAX	45,70
AUDAX	308,85
IBERDROLA	101,39
MOVISTAR	90,91
MOVISTAR	67,13
GRUPO DELTA	299,98



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

NATURZAINDIA ELKARTEA	18.000
JUANTXO GARMENDIA EIZMENDI	2.038,85

### ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **21.911,73** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

### **LAUGARREN PUNTUA**

### **2014 EKITALDIKO UDAL AURREKONTU OROKORRAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA**

Ondoren batzarkideei 2014 ekitaldiko Udal Aurrekontu Orokorraren likidazioaren berri ematen da, 2015/10 zenbakia duen eta 2015ko martxoaren 26an Alkate Ebazpenez onartua izan zena:

### **2015/10 DEKRETUA**

Udal honen 2014ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

### **EBATZI DUT**

**Lehena.-** Udal honen 2014ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2014-12-31n:		124.692,80
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2014-12-31n:		93.596,57
Aurrekontuko zordunak :	90.941,08	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	2.655,49	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2014-12-31n:		115.324,10
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	100.330,49	
Sarreraren aurrekontuko hartzekodunak:	0,00	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	14.993,61	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

4.- Diruzaintzako gerakin gordina (1+2+3):	102.965,27
5.- Saldo kobragaitzak:	0,00
6.- Diruzaintzako gerakin likidoa (4-5):	102.965,27
7.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina:	0,00
8.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (6-7):	102.965,27
9.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	82.147,54
10.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-64,26
11.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	0,00
12.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	0,00
13.- Aurrekontu emaitza (9+10+11+12):	82.083,28
14.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	90.597,47
15.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	19.531,27
16.- Kreditu gerakinak, guztira (14+15):	110.128,74

**Bigarrena.-** Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

**Hirugarrena.-** Idazkariaren komunikazioaren onespena, non ondorengoa dioen:

*2014 urteko Likidazioaren espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek ez du betetzen "2014rako gastu araua. Beraz, toki entitate hau behartuta legoke, berez, plan ekonomiko finantzarioa onartzera.*

*Hala ere, kontuan izanda 2014rako ezarritako defizit eta zor helburuak betetzen direla eta aurreko urteko likidazioan aurrezki garbia eta diruzaintza gerakina positiboak izan direla, Diputatuen Kontseiluaren Akordioa, 2013ko azaroaren 19ko Jarraibidearen 3. erregelari jarraituz, kontu hartzaile honek berariazko txostena hau egin behar du eta udalbatzarrari jakinaraziko zaio, plan ekonomikoa ordezkatzeko duena.*

*Beraz, argi eta garbi ikusten da likidazio espediente honek ez duela entitatearen finantza iraunkortasuna eta aurrekontuaren egonkortasuna zalantzan jartzen."*

**Laugarrena.-**Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

**BOSTGARREN PUNTUA**



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## **EUSKARA IKASTEKO DIRU-LAGUNTZEN ESKAERA, HALA BADA**

Ikusirik hiru herritarren eskaerak izan direla euskara ikastaroak egiteko.

Ikusirik Alkizako Udalak herritarren euskaratze prozesuak bultzatu nahi dutiela.

Ikusirik Gipuzkoako Foru Aldundiak horrelako ekintzak bultzatzeko diru-laguntzak atera dituela.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez

### **ERABAKITZEN DUTE**

LEHENA.- Gipuzkoako Foru Aldundiak Euskararen erabilera soziala normalizatzeko tokiko planak garatzeko diru-laguntza eskaera egitea, 2015 urteari dagokiona.

BIGARRENA.-M.A. andreak eginiko diru-laguntza eskaera onestea, euskara ikastaroa egiteko.

HIRUGARRENA.- C.S. andreak eginiko diru-laguntza eskaera onestea, euskara ikastaroa egiteko.

LAUGARRENA.- J.D. jaunak eginiko diru-laguntza eskaera onestea, euskara ikastaroa egiteko.

BOSTGARRENA: M.A., C.S. eta J.D. jaun/andrei jakinaraztea, diru-laguntzaren ordainketa bi zatitan egingo dela:

1. Ordainketa: Matrikularen % 50-a, matrikula eta ordainagiria Udaletxe honetan aurkezten dutenean.
2. Ordainketa: Ikastaroa amaitzean, gelditzen den % 50-a, Udaletxe honetan asistentzi ziurtagiria aurkezten dutenean.

SEIGARRENA: Erabaki hauen berri M.A., C.S. eta J.D. jaun/andrei ematea.

### **SEIGARREN PUNTUA**

### **2014 URTEKO KIROL BATZORDEARI EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAREN KITAPENAREN ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik Kirol batzordeak aurkeztu duela 2014 urteari dagokion diru-laguntzaren kontuen kitapena, ondorengo izanik:



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## **KIROL BATZORDEA 2014 MEMORIA**

### **SAN ISIDRO (maiatzak 16,17 eta 18)**

Ginkana: 50 €  
Gaztetxoan Errueda Lasterketa: 100€  
Mendi Ibilaldi ondorengo hamaiketakoak: 150€  
Frontenis Txapelketa:  
Trofeoak: 100€  
Pelotak + nikiak: 50€  
Txapelak: 140€

### **HERRIKO FESTAK (irailak 4,5,6,7 eta 8)**

Gaztetxoan Txirrindulari proba: 300€  
Pelota Txapelketa:  
Pelotak: 100€  
Trofeoak+ sagardoa: 180€  
Txapelak: 70€  
kamisetak: 75€  
Gaztetxoan Pelota: 100€  
Gaztetxoan toka: 60€

### **SAN MARTIN (azaroak 7,8 eta 9)**

Gaztetxoan Errueda lasterketa: 100€  
Mus eta Eskoba Txapelketa (trofeoak): 100€

### **SAN SILVESTRE**

Gaztetxoan lasterketa: 190€  
Hamaiketakoak 60€

### **GUZTIRA: 1.920 Euro**

Gaia aztertutik, Udalbata honek, aho batez, ondorengoa



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Kirol batzordeak aurkezturiko 2014 urtean jasotako diru-laguntzaren kitapena onestea.

**ZAZPIGARREN PUNTUA**

**KIROL BATZORDEAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA, 2015 URTEARI DAGOKIONA, HALA BADA**

Ikusirik Alkizako Kirol Batzordeak eginiko eskaera, non azaltzen duten 2015 urterako prestatu nahi dituzten ekintzak burutu ahal izateko laguntza ekonomikoa behar dutela.

Ikusirik 2015 urteko aurrekontuetan, Alkizako Kirol Batzordeari esleitzeko 1.920,00 eurotako partida bat dagoela.

Ikusirik 2015 urterako Alkizako Udalaren aurrekontuan partida nahikoa aurreikusi dela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako Kirol Patronatuari 1.920,00.- eurotako diru-laguntza ematea, 2015 urtean prestatu dituzten ekintzak burutu ahal izateko.

BIGARRENA: 1.920,00.- eurotako gastua onartzea.

HIRUGARRENA: Alkizako Kirol Batzordeari jakinaraztea, urte bukaeran, urtean zehar eginiko ekintzei buruzko gastuen kitapena aurkeztu beharko dutela.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri Alkizako Kirol Batzordeari ematea.

**ZORTZIGARREN PUNTUA**

**BELAKO PUBLIZITATE ETA KOMUNIKAZIOAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA, HALA BADA**

Ikusirik Belako publizitatea eta komunikazioak eginiko eskaera, non 2015 urterako aurrekontuan Txantxangorri aldizkariari diru-laguntza moduan harpidetza eskaera kontutan hartzea eskatzen duten.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Alkizako Udala, 2015 urtean, Txantxangorri aldizkariaren harpidetza egitea.

BIGARRENGOA: Erabaki honen berri Belako publizitatea eta komunikazioari ematea.

### **BEDERATZIGARREN PUNTUA** **TOLOSALDEA GARATZEN-i 2015 EKITALDIARI DAGOKION EKARPENA BURUTZEA, HALA BADA**

Ikusirik 2015eko martxoaren 10eko datuz, Tolosaldea Garatzen-ek aurkezturiko idatzia, non Alkizako Udalarik 2015 urteari dagokion ekarpena 3.750,00 eurotako dela jakitera ematen du, lehenengo ekarpena, 1.875,00 eurotako burutzeko eskatzen duelarik. Bigarreno ekarpena irailaren 30erako egin beharko delarik.

Gaia eztabaidatu ondoren, bertaratuek

## ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Tolosaldea Garatzen-i 2015 urteko ekitaldiari dagokion ekarpena onestea, 3.750,00 eurotako delarik, eta lehenengo ekarpena burutzea, 1.875,00 eurotako kopuruan. Bigarreno ekarpena irailaren 30erako egingo delarik.

BIGARRENA.- 2015 urteko udal aurrekontuan kreditu nahikoa aurreikustea

### **HAMARGARREN PUNTUA** **2015 URTERAKO UDAL ZERGEN HOBARI ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik 2015 urterako udal zergen eta tasen hobariak onestu direla, ondasun higiezinaren gaineko zergaren kasuan, famili ugariak izateagatik eta eguzki aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatuta dituzten ondasun higiezinaren kasuetan.

Ikusirik Alkizako Udalak, 2015eko otsailaren 2an deialdia zabaldu zuela, hobari edo bonifikazio eskaerak egiteko, azken eguna 2015eko martxoaren 2-a izan zelarik.





ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Ikusirik, goian aipaturiko epean sei hobari eskaera egin direla, famili ugariak izateagatik eta eguzki aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatuta izateagatik.

Ikusirik, sei eskaera hauek baldintza guztiak betetzen dituztela aipaturiko hobariak jasotzeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, Jon Umerez eta Jose Ramon Hernandez, alkate eta zinegotziaren abstentzioarekin, gehiengoz, ondorengo

#### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: J.R.H.. Jaunak egin duen 2015 urterako ondasun higiezin gainera zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %25eko hobaria.

BIGARRENA: J.M.G. Jaunak egin duen 2015 urterako ondasun higiezin gainera zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %25eko hobaria.

HIRUGARRENA: G.C. andreak egin duen 2015 urterako ondasun higiezin gainera zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %25eko hobaria.

HIRUGARRENA: I.U.U jaunak egin duen 2015 urterako ondasun higiezin gainera zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %25eko hobaria.

LAUGARRENA: M.K.M. andreak egin duen 2015 urterako ondasun higiezin gainera zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %30eko hobaria.

BOSTGARRENA: G.A. andreak egin duen 2015 urterako ondasun higiezin gainera zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %30eko hobaria.

SEIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuei ematea.

#### ***HAMAIKAGARREN PUNTUA***

**UDAL ONDASUN INBENTARIOA EGITEKO ASEVASA ASESORAMIENTO Y VALORACIONES S.A. EMPRESARI ESLEIPENAREN ONESPENA, HALA BADA**



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Ikusirik Alkizako Udalak, Udal ondasun inbentarioa egin beharra daukala.

Ikusirik, Tolosaldeko beste Udaletxe batzuk ere behar hau izan dutela, horregatik, era mankomunatu baten bidez aurrekontu desberdinak eskatu direla. Egokiena Asevasa Asesoramiento y Valoraciones, S.A. k aurkeztu duela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Asevasa Asesoramiento y Valoraciones, S.A. enpresari esleitzea Alkizako Udaletxeko udal ondasun inbentarioa egiteko kontratua. Bere zenbatekoa 6.000 euro izango delarik (BEZ gabe). Lanak aurkeztutako memorian datozen moduan gauzatuko dira.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Asevasa Asesoramiento y Valoraciones, S.A.-ri ematea.

### **HAMABIGARREN PUNTUA** **BESTE BATZUK**

#### **12.1. 2015 URTEKO TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUEN ZERGA ERROLDA ONARTZEA, HALA BADA**

Ikusirik 2015 urteko ekitaldiko trakzio mekanikodun ibilgailuen udal zerga kobratzeko errolda.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako Udaleko 2015 urteko trakzio mekanikozko ibilgailuen zerga errolda onartzea.

BIGARRENA.- Alkizako Udaleko 2015 urteko trakzio mekanikozko ibilgailuen zerga jendaurrean ipintzea edonork aztertu eta egoki dituen alegazioak burutu ditzan.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

HIRUGARRENA.- 2015 urteko trakzio mekanikozko ibilgailuen zerga ordaintzeko ondorengo borondatezko epea ipintzea: 2015eko maiatzaren 4tik uztailearen 6ra bitartean, biak barne.

## **12.2. ALKIZAKO UDALETXEKO TEILATUAREN BERRIZTAPENA, EXEKUZIO PROIEKTUAREN ONESPENA**

Ikusirik Alkizako Udalak Itten, herriekin lan egiten S.A. rekin hitzarmen bat sinatu zuela, Udaletxeko teilatuaren berriztapen lanak egiteko.

Ikusirik, Itten, herriekin lan egiten S.A.-k idatzi duela Udaletxeko teilatuaren berriztapenaren exekuzio proiektua. Paloma Martinez Goñi arkitektoak egin eta Euskal Herriko arkitektoen elkargo ofizialak, Gipuzkoako ordezkariak 2015eko martxoaren 12an bisatu duena.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

### **ERABAKITZEN DU:**

LEHENA: Itten, herriekin lan egiten S.A.-ren izenean, Paloma Martinez Goñi arkitektoak eginiko Alkizako Udaletxeko teilatuaren berriztapenaren exekuzio proiektua onestea. Euskal Herriko arkitektoaren elkargo ofizialak, Gipuzkoako ordezkariak 2015eko martxoaren 12an bisatua izan dena.

BIGARRENA: Itten, herriekin lan egiten S.A.-k, Alkizako Udaletxeko teilatuaren berriztapen lanak egiteko obra baimena ematea. Paloma Martinez Goñi arkitektoak eginiko exekuzio proiektuaren arabera.

## **12.3. EBA ERKIZIA UDAL AHOLKULARI TEKNIKOAK AURKEZTURIKO ALKIZAKO UDALETXEKO TEILATUAREN BERRIZTAPENEAN IKUSKARITZA TEKNIKO BURUTZEKO LAN PROPOSAMENAREN ONESPENA**

Ikusirik, Itten, herriekin lan egiten S.A.-k burutu behar dituela, Alkizako Udaletxeko teilatuaren berriztapen lanak. Paloma Martinez Goñi arkitektoak eginiko exekuzio proiektuaren arabera.

Ikusirik, aipaturiko obraren ikuskaritza tekniko burutzeko Eba Erkizia Udal Aholkulariak aurkezturiko proposamena, non ondorengoa dioen:

### **“ALKIZAKO UDALETXEKO TEILATUAREN BERRIZTAPENEAN IKUSKARITZA TEKNIKO BURUTZEKO LAN PROPOSAMENA**



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

**1. Lanen xedea:**

*Itten, herriarekin lan egiten S.A. foru sozietateko Paloma Martinez Goñi arkitektoak idatzi eta zuzendutako, 2015 eko martxoaren 12-an Euskal Herriko arkitektoen elkargo ofizialak bisatutako Alkizako Udaletxearen Estalkiaren Berriztapena proiektuaren lanen udal ikuskaritza teknikoa.*

**2. Ordainsaria:**

*Udaletxeko teiltuaren berriztapenaren lanen udal ikuskaritza teknikoa burutzeagatik, arkitektoaren ordainsari itundua 2.574,35 eurotako izango da. Kopuru honi BEZ-a gehitu beharko zaio.*

**3. Ordaintzeko modua:**

*Udalak, Itten, herriarekin lan egiten S.A. teknikoen eskutik azken obra likidazioa jasotzerakoan arkitektoaren kontu korrontean diru sarrera eginez.”*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Eba Erkizia Udal Aholkulari teknikoak eginiko proposamena onestea, hau da, Alkizako Udaletxeko teiltuaren berriztapenean ikuskaritza teknikoa burutzeko lan proposamena.

BIGARRENA: 2.574,35 eurotako (BEZ gabe) aurrekontua eta gastua onestea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Eba Erkizia Udal Aholkulari teknikoari ematea.

**HAMAIRUGARREN PUNTUA**  
**ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

**13.1.MARTXOAK 21. ADIERAZPEN INSTITUZIONALA: HERRI ANITZA, HERRI ABERATSA**

Ikusirik Tolosaldea Garatzenek aurkezturiko adierazpen instituzionala, Martxoak 21: Herri anitza, herri aberatsa, non ondorengoa dioen:

*“Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Nazioarteko Eguna martxoaren 21ean izango da, eta, egun hori aitzakia hartuta, udal honek zera adierazten du:*

- 1. Herrian bizi diren pertsona guztiak dira herritarrak, edonon jaioak direla era.*
- 2. Herritar guztiok izan behar ditugu eskubide eta betebeharrak. Eta*



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

- horretarako lanketa bat egingo da.*
- a. Pertsona guztien eskubideak bermatzeko.*
  - b. Aukera berdintasuna bermatzeko.*
  - c. Ezberdin izateko eskubidea bermatzeko.*
- 3. Jarrera xenofobo eta arrazistak identifikatu eta salatuko dira.*
  - 4. Jendarte kohesionatu eta justu bat eraiki behar da, lehian baino elkartasunean oinarritutakoa, eta aniztasuna beldurrez eta gatazka iturri bezala hartu beharrean, aberastasun iturri bezala hartuko duena.*
  - 5. Bide horretan elkarbizitza da gakoa. Horretarako, beharrezkoa da elkar-ezagutza eta elkar-aitortza aitortzea.*
  - 6. Herrian dagoen kultura eta hizkuntza aniztasuna aberasgarria da herriarentzat, eta, horiek babestu eta indartzeko lanketa egingo da, betiere, euskara kohesio eta komunikazio hizkuntza bezala aitortuz.*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Tolosaldea Garatzenek aurkezturiko martxoak 21. Adierazpena instituzionala: Herri anitza, herri aberatsa, bere osotasunean onestea.

### **13.2. ALKIZAKO ERREGISTRO ZIBILEKO IDAZKARIAK AURKEZTURIKO MOZIOAREN ONESPENA, HALA BADA**

Ondoren Alkizako Erregistro zibileko idazkariak aurkezturiko mozioa irakurtzen da, ondorengoa diolarik:

*“Erregistro Zibilak gure bizitzaren gertaera garrantzitsuenak jasotzen ditu. Ber-tan erregistratzen dira norberaren jaiotza, ezkontza, seme-alabak, eta heriotza. Baita hasierako inskripzioa aldatzea eragiten duten bizi gorabeherak jasotzeko espedienteak ere izapidetzen dira hor: aitatasun edo amatasun aitortzea; ado-pzioa; ezgaitasundeklarazioa; tutoretzak; izen, abizen edota sexu aldaketak; nazionalitatea eskuratzea; pentsio publikoak edo aseguruak edo osagai pribatuak edo enpresarenak kobratzen jarraitu ahal izateko gure nagusiek hain beharrezkoa duten bizi-agiria ematea. Horregatik, funtzionario publikoak izan dira Erregistro Zibila eraman dutenak betidanik; izan ere, duela zenbait urte Justizia Ministerioko (edo erkide autonomiko Justizia saileko) funtzionarioek bermatzen dituzte jasotako datuak eta, era berean, legalki dagozkion pertsonari haien eskuratze libre eta doakoa.*

*Bake epaitegiek herritarrei Justizia administrazioa hurbiltzen diete, alderdi diren edozein prozeduraren inguruko informazio orokorra eskaintzen dietelako, eta honez gain, Erregistro Zibileko izapideak betetzen dituztelako. Horrela, herrita-*



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

*rrek ez dute horrelako tramiteak egiteko hiriburuetara joan behar, hainbat herri-  
tan bake epaitegia dagoelako.*

*Azken urteetan, gainera, Herri Administrazioak diru inbertsio handia egin du  
Erregistro Zibilaren jarduna modernizatzeko: zerbitzu honi dagozkion dokumen-  
tuak informatizatu eta digitalizatu eta bertan dauden datu guztietarako sarbide  
eta erabilpen segurua eta kontrolatua izateko programa martxan jarri du. Zeha-  
zki, diru publikotik 128 miloi euro baino gehiago inbertitu dira teknologia berri  
hauetan.*

*Alderdi Popularraren gobernuak Erregistro Zibila esku pribatuetan utzi nahi du,  
horren kudeaketa merkataritza erregistratzaileei emanaz, bake epaitegien eta  
gaurko barruti judizialen existentzia zalantzan jarriz. Horrela jasotzen da Botere  
Judizialaren Lege Organikoa eta Auzitegi eta Epaitegien Mugape eta Antolake-  
tari buruzko Legea aldatzeko aurreproiektuetan, eta uztailaren 4ko 8/2014 Erre-  
ge Dekretu Legean.*

*Aurtengo otsailaren 20an, PNV-EAJ, Euskal Herria Bildu eta Partido Socialista  
de Euskadi-Euskadiko Ezkerra alderdien babesarekin, Eusko Legebiltzarrak le-  
gez besteko proposamena onartu zuen Erregistro Zibila gaur egun dagoen mo-  
duan mantentzeko, hiritarrei zerbitzu publikoa eta dohainikakoa eskaintzeko.  
Zehazki, pribatizazioak ekarriko ditu:*

*1.3.500 langile publikoen lanpostuen galera. Hauek prestatuak izan dira, eta  
gaitasuna eta espezializazioaren jabe dira Erregistro Zibil arloan.*

*2.Bake epaitegiak egungo zereginez hustea lehen neurria da, euren desager-  
tzea bilatuz gerokoan. Norabide horretan, Botere Judizialaren Lege Organikoa  
eta Auzitegi eta Epaitegien Mugape eta Antolaketari buruzko Legean egindako  
aldaketek aukera ematen diete, ez soilik bake epaitegiak desagertzeko aukera,  
baizik eta barruti judizial gehienak ere, epaitegiak hiriburuetan soilik kokatuko  
dituztelarik.*

*3.Tasak jarriko dira zerbitzua ematearen truke. Egia da 8/2014 Errege Dekretu  
Legeak esaten duela zerbitzua doakoa izango dela, baina Merkataritza Erregis-  
tratzaileak, lanbidera sartzeko erari eta monopolio gisa duten zereginari dago-  
kienez, funtzionario publikoak izan arren, muga-zergen bitartez kobratzen dute  
egindako zerbitzua; eta etorkizunean, Erregistro Zibilean egin beharreko izapi-  
deak ere horien bitartez kobratuko dituzte, hau da, herritarrei nahitaezkoak zai-  
zkien jaiotze bat erregistratu, familia liburua, heriotza, ziurtagiriak, bizi eta egoe-  
ra agiriak, etb.... Gainera, lege berriak erregistratzaileen ahalmenak handitzen  
ditu eta inskribatu beharreko kontuak ikaragarri puzten (edozein ahalorde, hel-  
bide inskripzioak, pentsio-planak, testamentuak...), hauek guztiak, jakina, herri-*



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

*tarrek ordaindu beharko dituzte. Horrela, hemendik aurrera Erregistro Zibilak merkatal jarduera izango du, eta egite bakoitzak bere salneurria izango du, eta jasotako dirua gutxiengo pribilegiatu horientzat izango da.*

*4. Datu babesaren segurtasun falta. Merkataritza Erregistroko langileak ez dira funtzionario publikoak baina herritarron datu pertsonaletarako sarbidea izango dute, nahiz eta funtzionario publikoak ditugun isilpeko eta sekretuko betebeharrak ez izan.*

*5. Azken urteetan Erregistro Zibila modernizatzeko egindako inbertsioa esku pribatuetara pasatuko da, kudeaketaren emate horrek baitakartza baliabide material guztion ematea ere. Baliabide materialak ematea diru publikoa xahutzea da: Inbertsioak eginak daudelako, baliabide materialak ordainduak, azpiegiturak eginak eta giza baliabideak kontratatuak, formatuak eta gaituak. Hots, diru publikotik 128 milioi euro oparituko zaie Merkataritza erregistratzaileei euren onerako.*

*6. Erregistro Zibilean gordetzen diren gure historia pertsonalerako, familiarerako eta herri gisa dauzkagun datuetarako sarbidea murriztea. Gure arbasoen, haien jatorriaren eta bizimoduaren gaineko informazioa aurki baitateke bertan.*

- Hau guztia dela eta, Larraulgo Udalaren osoko bilkurari eskatzen dizkiogu: Merkataritza erregistratzaileei Erregistro Zibilaren kudeaketa ematen dion uztailaren 4ko 8/2014ko Errege Dekretu Legearen aurka ager dadin.*
- Halaber, adieraz ditzan bake-epaitegiak eta gaurko Erregistro Zibilaren bulegoak izan behar direla Erregistro Zibilak kudeatzen dutenak, herritarre zerbitzu publikoa eta dohainikakoa eskainiz, orain eta betiko.*
- Kontutan izanda aipatutako EDLa indarrean sartuko dela 2015eko uztailaren 15ean eta aurtengo otsailean Eusko Legebiltzarrak onartutako ebazpenarekin bat eginda, udal honek eska diezaion Eusko Jaurlaritzari Erregistro Zibila Kudeatzeko eta betearazteko eskumenak jasotzeko negoziazioak azkar ditzan.”*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, Alkizako Erregistro zibileko idazkariak aurkezturiko mozioa bere osotasunean onestu du.

*Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 23.00 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.*



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)